

<b>IRUDIA, LOGOTIPOA, MARKA, SINBOLOA...</b>	
<b>GCH-REN ALDAGAIA</b>	Gatazkaren aurreko esposizioa
<b>IZENBURUA</b>	<a href="#">Gurasoen arteko gatazka eta haurraren lorpen akademikoa: luzerako ikerketa</a>
<b>EGILEAK</b>	Harold,G.T.,Aitken, J.J. eta Shelton, K.
<b>ARGITALPENA</b>	Journal of Child Psychology and Psychiatry 48, 12, pp 1223–1232
<b>URTEA</b>	2007
<b>LABURPENA</b>	Arlo honetako ikerketak argi frogatzen du gurasoen arteko gatazkaren eta haur garapen psikologikoaren artean lotura dagoela. Ikerketa-lan gehienak, haur-doikuntza psikologikoaren (barneko sintoma motak eta kanpoko arazo motak) adierazle oso orokorretan oinarritu dira, eraginaren gainean ikertu dutenean. Honako artikulua hau –neska-mutil berberen laginaren jarraipena luzaroan eginez-honako honetan zentratzen da: Erresuma Batuko 11 eta 13 urteko 230 neska-mutilen lorpen akademikoaren eta guraso-gatazkaren arteko eraginean. Txosten hauen arteko erlazioak analizatu ziren: gurasoen arteko gatazka aita, ama eta seme-alaben ikuspegitik; gurasoen arteko harreman okerren haur-pertzepzioak; guraso-gatazkaren eraginezko erru-atribuzioaren haurren pertzepzioa; eta haur portaera oldarkorraren irakasleen azalpenak. Era berean, matematikan ingelesean eta zientzian haurren errendimendua ebaluatu zen. Emaitzek zera erakusten dute, gurasoen arteko gatazkaren ondoriozko errudun-pertzepzioak eragin esanguratsua duela luzaroko errendimendu akademikoan.
<b>AURKIKUNTZEN INPLIKAZIO PRAKTIKOAK</b>	Datuek argi adierazten dute garrantzitsua dela analizatzea haurrek nola hautematen dituzten gurasoen arteko gatazka egoerak eta, batez ere, garrantzitsua dela modu terapeutikoan egin beharreko esku-hartzea, ager daitezkeen “auto-errudun” sentimenduen atribuzioa saihesteko.